

## **BALIO PROPOSAMENA**

Zer eskainiko dugun edo zer arazo edo behar konponduko dugun definitzea da. Enpresak bere bezeroei eskaintzen dizkien onura-multzoa da.

Gure proposamenaren balorea kuantitatiboa zein kualitatiboa izan daiteke.

- Balorea kuantitatiboa bada, neurgarria izango da.
- Balore kualitatiboa, berriz, bezeroak produktu edo zerbitzu jakin baten inguruan duen ikuspegiarekin dago lotuta. Kasu horretan, diseinua edota bezeroaren esperientzia bezalako faktoreak hartzen dira kontutan gure produktua erabiltzeko orduan.

Balorezko proposamena berez ez da produktua edo zerbitzua, baizik eta horrekin lotuta dagoen kontzeptua.

### **Gure proiektuaren balio proposamena:**

Desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzen eta harremanetan jartzen laguntzen diegu, beste pertsonekin harremanetan jarriz eta haiekin batera ekintzak antolatuz.

Arlo kualitatiboan, gure aplikazioaren diseinu erakargarriak besteetatik bereizten gaitu.

Pertsonen datu pertsonalak ondo babestuta egongo dira. Era berean, arlo kuantitatiboan, prezioa merkea izango da, gure helburu nagusia pertsonak gizarteratzea delako eta diruak ez duelako garrantzi handirik.